

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2020ko irailaren 25ean izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2020/10/06. 192. zk.

AGIRIAK EMOTEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua- IZAEREA ETA OINARRIA

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikulua emandako ahalmenak erabiltzeko eta Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21-28 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrira, agiriak emateagatik tasa ezarri da. Ordenantza fiskal honek arautuko dau tasea.

2. artikulua- EGITATE EZARGARRIA

Tasaren egitate ezargarria da administrazioak edo udal organoek 5. artikuluan aurreikusitako agiriak emateko behar dituen espedienteen tramitazioa dala-eta egiten dan administrazio jarduera, alde batek halan eskatuta.

3. artikulua- SUBJEKTU PASIBOA

Subjektu pasiboak dira, agiria eskatzen daben pertsona fisikoak eta juridikoak, oinordetzak, ondasunen elkartek eta Tributuen Foru Arauaren 34. artikulua aitatzten diren gainerako erakundeak.

4. artikulua- SORTZAPENA

Tasa ordaindu beharra egitate ezargarria dakarren udal jarduera hasten danean sortuko da. Horretarako, edozelan be, jarduera hasi egin dala ulertuko da subjektu pasiboak eskabidea aurkezten duen momentuan. Horregatik behin eskaria eginda, uko egiteak ez dau eukiko sortzapenean eraginik eta tasa ordaindu beharko da.

5. artikulua- EGITATE EZARGARRIA ETA KUOTA

Tasa kuota zerbitzuen tarifa taula hau aplikatzearen arabera finkatuko da:

2021. Urtea

1.1- Administrazio agiriaren eta espedientetako agiriaren fotokopiak ematea eta Udaletxean dauden agiriaren fotokopia dilijentziadunak ematea:	
Zerbitzua bera eta orri bat	3,11 €
Mugatik gorako orri bakoitzeko	0,13 €
1.2- Planoen fotokopia paperean, m ² -ko	3,48 €

1.3- Planoen fotokopia poliesterrean, m ² -ko	10,43 €
1.4- Argazkiak paperean	2,20 €
1.5- Argazkiak CDan	3,15 €
1.6- Artxiboko dokumentuen kopia A4 orrian	0,15 €
1.7- Artxiboko dokumentuen kopia A3 orrian	0,22 €
1.8- Artxiboko dokumentuen kopia CDan	6,62 €
2- Arma txartelak emotea	4,80 €
3- Udalaren idazkariak eginiko botere banaketea	10,00€
4- Ondasun higiezinak eskualdatzea landa katastroaren ondorioetarako	14,54 €
5- Tokiko erakundean eskatzen diran egiaztagiria, udal erroldako datuetatik egiten diranak izan ezik	4,80 €
6- Oinezko guneetara sartzeko agiriak:	
6.1- Oinezko guneetara ibilgailuak sartzeko galdu, lapurtu edo alferrik galdutakoaren ondorioz eskatu/emondako txartel bakoitza	11,75 €
6.2- Oinezko guneetara pegatina, txartel eskari barriekaz eta txartel barritzapenakaz emoten diran pegatinak salbu	2,25 €
7- Azterketa eskubideagaitik: azterketan izen emote hutsagaitik ordainduko da, izena emon eta gero azterketara aurkeztu daitekeen edo aurkeztu dan ala ez kontuan izan barik.	
7.1-Azterketa eskubideagaitik	4,00 €
8- Alkateak edo zinegotziek egindako ezkontza zibila	101,50 €
9- Egitezko bikoteen erregistroa	38,89 €
10.1- Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren ganeko Zerga: balizko zerga kuotaren kontsulta	4,06 €
10.2- Bestelako tributuen kontsulten ondoriozko erantzun idatziak	3,05 €
11- Interesdunak diran partikularren eskariz, afera zibiletan egiaztapenak egin eta polizia-txostenak igortzea:	
11.1- Udaltzaingoaren esku hartze edota egiaztapenaren polizia-txostenaren kopia emotea eta herritarren segurtasun edota zaintza zerbitzuetako jardunean hirugarren batzuen ondasunen kalteetaz ohartuta egiten dauzan txostenak emotea, kasu honetan agiri eskatzailea kaltetua bera ez danean	66,66 €
11.2-Trafiko istripuan Udaltzaingoaren esku hartze edota egiaztapenaren polizia-txostenaren kopia emotea	133,32 €
11.3- Trafiko istripuagaitik Udaltzaingoak egindako atestatuaren kopia emotea	266,63 €

6. artikulua- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

Legeetan ezarritako edo nazioarteko itunak aplikatzearen emoitza arauetan ezarritako hobariak edo salbuespenak baino ez dira emango.

7. artikulua- KUDEAKETA ARAUAK

Tasa autokitapen araubidean eskatuko da eta *Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantza* araubide horrentzat xedatuta dagoena izango orokorrean aplikagarria. Dena dela, kasu jakin hauentzako honako arauak jarraituko dira:

1- 1. epigrafeko agirien kasuan, aurretiaz agiri kopurua jakiterik ez dagoan ezkerro, ataraten diranean Berh@z bulegoan finkatuko da eskatzaileak autolikidazinoz ordaindu beharrekoa.

2- 6. epigrafekoak:

- a) Autolikidazioa ordaindu barik Alde zaharrera sartzeko baimen txartelik ez pegatinarik ez da emango, baina kobrurako prozedurak jarraituko dau Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantza xedatutakoaren arabera.
- b) Oinezko gunetara ibilgailuak sartzeko galdu, lapurtu edo alferrik galdutakoaren ondorioz txartel berria eskatzeak tasa sortzen dau eta ez dago baliogabetzerik galdutakoa aurkitzean edo lapurtutakoa eskuratzean

3- 7. epigrafekoak:

3.1) Lanpostuetarako deialdietan azterketara aurkeztu ahal izateko zeintzuk baldintzak bete behar diren guztiz zehaztuta dagozan ezkerro eta izena ematean tasa sortzen den ezkerro, aurkezten denak betetzen dauzala ulertu behar da eta izena ematean tasa sortzen den ezkerro, Erregistro Orokorrean eskaria aurkezten duenean tasa ordaindu dauanaren justifikazioa be aurkeztu beharko dau. Ostantzean eskaria ez da kontutan edukiko eta deialditik kanpo geratuko da.

3.2) Behin izena emanda eta ordainduta, deialdiaren baldintzak betetzen ez dauzalako azterketara ezin badau aurkeztu edo aurkeztera uko egiten badau, ordaindutako tasa ez da itzuliko.

4- 8. epigrafekoak: Alkateak edo zinegotziak ezkondu daiazan eskatzen dan momentuan bertan edo egitezko bikoteen erregistroan erregistratzeko eskatzen dan momentuan bertan ordaindu beharko da autolikidazinoz tasa, ostantzean eskaririk ez da bideratuko.

5.- Interesdunak diren partikularren eskariz Udaltzaingoak egindako afera zibileko polizia-txostenen kopiak eskuratzeari jagokozan 11.1, 11.2 eta 11.3 epigrafeetako kuotak aurretiaz, eskariarekin batera, ordaindu beharko dira autolikidazioa eginda berh@z bulegoan. Ordaindu barik ez da emango txostenaren kopiarik. Emandako zerbitzuarentzat aplikagarria den epigrafeari buruz zalantzarik egon ezkerro, Udaltzaingoaren Buruzagitzairen irizpidea izango da nagusi.

6.- Autolikidazio kasuetan epigrafe okerra aplikatu dela egiaztatzen bada, Errenta Sailak epigrafe egokiarekin behin-betiko kitapena egingo du autolikidazinoz ordaindutakoa haren kontura erregistratuta.

8. artikulua- ZERGA HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK

Zerga arau-hausteen eta horreen kalifikazio desberdinen inguruan, baita kasuan kasuko zigorren inguruan be, Tributuen ganeko Foru Araua eta Tributuen Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskapenaren Ordenantza Orokorreko arauak aplikatuko dira.